



“Partekatu eraldatzeko” boluntarioen topaketa - MEMORIA

2019an, boluntak dinamizatutako Boluntariotzako Erakundeen FOROAK ekintza bateratu bat egin du, ohi bezala, eta bertan parte hartzen duten erakundeetako boluntario guztiei egin die gonbita, bai eta boluntariotzako zerbitzuarekin harremanetan dauden beste erakunde batzuetako boluntarioei ere.

Ekintzaren helburuak hauexek ziren:

- Bizkaiko entitateen boluntarioen arteko topaketa espazioa erraztea.
- Boluntarioek egiten duten lana gizartean antzematea eta baloratzea.
- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna ospatzea.


Aurten PARTEKATU ERALDATZEKO leloa aukeratu dugu boluntariotzaren dimentsio eraldatzailean eragin nahi genuelako urte batzuetaz Foroaren entitateetatik landu eta zabaldu duguna.

Boluntariook egiten duguna gure denbora, gure ezaguerak eta gure esperientziak PARTEKATZEA da, gauden entitateen zerbitzura ipintzen, kolektibo zehatz baten edo gizarte orokorraren baldintzak hobetzeko, garrantzitsua deritzogu Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean PARTEKATU ERALDATZEKO idea hori nabarmentzea.




Ekitaldia, Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren topaketa eta ospakizun bat izan zena, Bilboko Berreginen Museoa bilakatu zen 18:00etatik 21:00etara. Aforoa 200 pertsonetako zen, 170ek izena eman zuten, eta hoietatik 150ek gutxi gora behera bertaratu ziren. Pertsona hauek 27 entitate desberdinetik etorri ziren, eta hauetariko 20k FOROan parte hartzen dute. FOROko 10 erakundetako pertsonak lagundu zuten ekitaldia gauzatzen. Ekitaldiaren aurretik ere laguntza eskatu genuen eta FOROaren 12 entitateko pertsonak lagundu zuten. Ekitaldiaren edukia honako hau izan zen:

- 18:00etatik – 18:30etara: HARRERA (bertaratutakoei harrera, aipamen orokorrak, arropazaindegia, boluntariotzaren Photocall-a, boluntariotzaren argazkiak pantailan ipintzea eta giro musikala).



CÁRITAS ETA GORABIDEREN BOLUNTARIOEN ARGAZKIAK PHOTOCALL-EAN




ENTITATEEK BIDALITAKO BOLUNTARIOEN EKINTZEN ARGAZKIAK ETA EKITALDIAN PROIEKTATUAK

- 18:30etatik – 19:30etara: TOPAKETA ETA HARREMANA (ekitaldiaren aurkezpena leloarekin eta prestatutako jarduerekin, bertaratutakoen arteko ezagutza eta harreman dinamikak, Eraldaketa Txokoa).



EKITALDIAREN AURKEZPENAREN ETA BERTARATUTAKOEN ARTEKO HARREMANETARAKO DINAMIKEN ARGAZKIAK

ERALDAKETA TXOKOAREN EKINTZAREN ARGAZKIAK



- 19:30etatik – 20:30etara: OSPAKIZUNA (musika, mokaduak, bertaratutakoen arteko harreman informala)





- 20:30etatik– 21:0etara: AGURRA (ekitaldiaren itxiera Eraldaketa Txokoan jasotakoarekin eta bertaratutakoei objektu sinbolikoa oparitzen).



BERTARATUTAKO BOLUNTARIOEI OPARITUTAKO OBJETU SINBOLIKOA: ORRI-MARKATZAILEA